


Zikari aurre egiteko txertoa garatzeko ahaleginetan



Zika birusaren egitura. ARG.: MANUEL ALMAGRO RIVAS/CC-BY-SA 4.0.

Zikari aurrea hartzeko txertoa garatzeko asmoa duten Inovio eta GeneOne Life Science farmazia-konpainiek gizakietan [lehen proba klinikoak egiteko baimena jaso dute](#). DNA-txerto sintetiko bat da, eta animalia-eredu txikietan zein handietan emaitza onak eman ditu. Izan ere, zikaren aurkako antigorputzak eta T zelulak sortzea eragin du txertoak; horrenbestez, pertsonetan ere eraginkorra izango dela espero dute.

Lehen fasean 40 boluntariok parte hartuko dute; denak gizonezkoak eta osasuntsuak. Txertoa segurua, onargarria eta eraginkorra dela frogatzea da helburua. Hala balitz, proba klinikoen hurrengo fasera igaroko litzateke eta pertsona gehiagorekin probatuko lukete.

Aldi berean, *Nature* taldeko bi aldizkarik Zikarekin, dengearekin eta txertoarekin lotutako artikulu bana argitaratu dituzte. Batetik, Pasteur Institutuko [ikerketaren baten berri eman dute *Nature* aldizkarian](#). Ha-

ren arabera, berez dengearen birusarekiko espezifikokoak diren bi antigorputz Zikaren aurrean ere eraginkorrak direla frogatu dute.

Zika hedatu den leku gehienetan dengea ere badagoenez, ikertzaileek uste dute aurkikuntza garrantzitsua dela Zikaren patogenesia ezagutzeko eta bi gaitzei aurre hartzeko txertoa garatzeko.


Beste [artikulu Nature Immunology aldizkarian argitaratu da](#). Londresko Imperial College unibertsitatean egindako ikerketa bat da, eta horretan ere dengearen eta Zikaren arteko interakzioa aztertu dute. Emaitez erakutsi dutenez, dengea izan ondoren, pertsonek gorputzean dituzten antigorputzek erraztu egiten dute Zika birusa ugaltzea. Horrenbestez, dengea izateak Zika infekzioa pairatzeko aukera areagotuko luke.

Antza denez, aurrerapauso nabarmenak ematen ari diren arren, seguru asko oraindik luze joko du txertoa garatzeko bideak. ●

Zulo beltzen beste talka bat detektatu dute LIGO behatokian

Grabitazio-uhinak bigarren aldiz detektatu dituzte LIGO behatokian. [Otsailaren 11n iragarri zuten](#), lehenengoz, grabitazio-uhinak detektatu zituztela. Eta astronomiaren ate berri bat ireki zuten horrekin; izan ere, uhin elektromagnetikoen bidez behatu beharrean, grabitazio-uhinen bidez behatu daitekeela erakutsi zuten. Orain, [Physical Review Letters aldizkarian argitaratu dute](#) bigarren behaketa. Aurrekoan bezala, bi zulo beltz elkartzean igorritako grabitazio-uhinak dira detektatu dituztenak.

Abenduaren 26an detektatu zituzten grabitazio-uhin horiek LIGOko bi interferometroek (lehenengo behaketatik hiru hilabetera). Zulo beltzak, aurrekoak baino txikiago ziren; 8 eta 14 eguzki-masa zuten, aurrekoek 36 eta 29. Ikertzaileek adierazi dute zulo beltzak nola elkartzen diren azaltzeko zeuden iragarpen teorikoekin bat egiten duela behatutakoak. Iragarpen teoriko horien arabera, zulo beltzak elkarren inguruan mugitzen dira, hamarka orbita eginez, fusionatu arte. Horrelako 55 bira behatu ahal izan dituzte, segundo bat iraun zuten seinalean. Horrez gain, bi zuloetako bat errotatzen ari zela ere jakin ahal izan dute. ●



ARG.: LIGO/T. PYLE